



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BANDOA

Herritar guztioi jakinarazten dizuet 2010 urteko **Ura eta zabor tasetan hobariak** eskatzeko epea irekitzen dela eta **EKAINAREN 30a** bitartean, Larraulgo Udaletxean eskatzeko aukera izango dezuela, horretarako behean jasotzen dena bete beharko da:

HOBARI EDO BONIFIKAZIOAK

1.- URA ETA ZABAORRA TASA

a) Bete beharreko baldintzak:

- Larraulgo udalerrian familiako kide guztiak erroldatuta egotea.
- Ondasun higiezin bat baino gehiago bere izenean ez edukitzea etxebizitzan bizi direnak.
- Larraulgo Udaletxean, dagokion espedientean aurkitzen den Taulan adierazitako diru sarrera eremuan aurkitzea.

b) Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Famili unitateko kide guztien NAN fotokopia.
- Famili unitatea osatzen duen kide bakoitzaren erroldaketa ziurtagiria.
- Famili unitatearen elkarbizitza ziurtagiria.
- Familiako kide guztien diru sarreraren ziurtagiria: Errenta aitortpenaren fotokopia 2009 urteari dagokiona edo egitea behartuta ez dagoenaren agiria, eta bere kasuan langabezi txartela eta INEM-etik jasotzen den laguntzaren agiria.
- Gipuzkoako Foru Ogasunak emandako ondasunen agiria.

Larraulen, 2010 urteko ekainaren 7an
ALKATEAK